

astejorran

• ALBERTO CATALAN •

[UPNKO TALDE PARLAMENTARIOKO BOZERAMAILEA]

Nafarroako kaleak berriz leporaino

Azken asteotan, Nafarroako herriak berri ere argi eta garbi adierazi du askatasunaren alde dagoela erabat, eta indar berarekin gaitzetsi ditu helburu politikoak lortzeko bitarteko guztiek, are indarkeriak berak ere, balio dutela oraindik ere pentsatzen dutenak.

Nafarroa osoko kaleak jendez mukuritu bete dira, Iruñekoak bereziki, eta aldi demokratiko honetako herri-elkarretaratze handienak gertatu dira. Eta hala, berri ere argi geratu da ETA banda terroristak ez duela lekurik lurralde honetan, ez duela makurtaraziko Foru Komunitatearen borondatea, eta zentzugabekeria guztiz gaitzesten dela Nafarroako Erresuma Zaharreko iparraldetik hegoaldera bezala ekialdetik mendebaldera ere, eta koakzioak, heriotzak, txantajeak edo mehatxuak gizarte honetako alderik ilunena eta ergelena ordezkatzen dutela.

Nafarroak berri ere erakutsi du gizarteak batuta egon behar duela horrelako portaerak gertatzen direnean, ez dela anbiguotasunik izan behar, Zuzenbidezko Estatua edo askatasuna defendatzen dutenekin zaudela edo haien aurka, hots, ez dagoela erdibiderik, giza eskubideak errespetatzeko ezinbestekoa dela haietan garrantzitsuena aldezea, bizitzeko eskubidea alegia, bai eta adierazpenak libreki egiteko eskubidea ere, hau da, egoki deritxozuna beldurrik eta ingurura kezkatuta begiratu gabe esateko eskubidea.

Nafarrek beste behin eskatu diete beren ordezkari politikoei gauza izan daitezen neurria emateko, indarkeriaren aldekoek esperantza zapuztu ondoren Ermuko espiritua berreskuratzeke, gogoan izateko herriak kaleak bete zituela 1997ko uztaillean, gogaituta baitzegoen hainbeste zentzugabekeria ikusteaz, eta 2000ko urtarrilean gauza bera egin zuela.

Erakunde politikoei seriotasunez jokatu behar dute, denboran irauten duten postulatuak izan behar dituzte, ez dute hipokrisia edo faltsukeria erabili behar, eta planteamendu zein jokabide argiak izan behar dituzte. Horixe eskatzen ditu Nafarroako herriak.

Horregatik guztiagatik, guztiz zentzugabeak eta arbuigarriak dira foru komunitate honetatik kanpoko hainbat buruzagi politikoren mutur-sartzeak, eta oraindik ere lurralde honi erasotzen jarraitzen dute beren ameskeriekin, nafar gehien-gehienek ez onartu arren. Euskal herriaren borondatea errespetatzeko eskatzen duten horiek, etsenplua eman beharko lukete, eta nafarren borondatea errespetatu. Azken bolada honetan alderdi politikoei eta Nafarroako Parlamentuari herriarrikak beren borondatea adieraztera deitu dituzten bi aldietan, Nafarroa esatea libertatea esatearen sinonimoa izan da. Hori da Erresuma honen ahalegina, ilusioa eta esperantza.

Erredakzioan itzulia

• JOSERRA LOPEZ-LARRINAGA •

[EUSKO ALKARTASUNAKO BATZORDE NAZIONALEKO KIDEA]

Dieta euskal-nafarra

Euskal herritar askok gure herriaren historia politikoan fase berri baten atarian gaudela pentsatzen dugu. Horregatik, iragane-ko dinamika oztapatzaileak gure ingurutik desagertu ez diren arren, aurre-erapausoak emoteko garaia heldu dela diogu. Fase berri honetan, Nafarroa eta gainontzeko herrialdeen arteko artikulazio politikoa berrikustea lehentasunetako bat dela uste dugu Eusko Alkartasunean eta, norabide horretan, proposamen zehatzak egin ditugu, *Dieta euskal-nafarra* deritzona proiektu garrantzitsuenetakoa jotzen dugularik.

Abertzaleok hainbatetan gogorazten dugun legez, nafarrei inoiz ez zaie zuzenean galdetu zelako harremana eduki gurako luketen EAEkin. Modu ez-ofizialean itauntzen zaienean, gainera, ez du emoten egungo ereduarekin oso ados daudenik. Hona hemen, bestela, Madrileko *Vox Publica* entpresak 1997ko martxoan egindako ikasketa soziologiko baten konklusioetako bi:

1- Nafarren % 64,5ek «positibo» edo «oso positibo» jotzen dute EAE eta Nafarroaren arteko harremanak areagotzea; «negatiboa» edo «oso negatiboa» litzatekeela uste dutenen portzentaia %23,6 baino ez da.

2- Nafarren %55,8 Nafarroaren autonomia errespetatuz EAErekin harreman iraunkorra ezarriko lukeren erakunde-akordio batekin «erabat» edo «nahiko ados» daude; «aurkakoak», berriz, %15,7 izango lirateke; eta azkenik, %16,5 ez ados ez aurka agertzen dira.

Ez nuke datuekin inor aspertu gura, beraz aipatutako ikasketa Elkarri mugimenduak argitaratuta daukala iragarritz, azken datu esanguratsu bat azpimarratzen dut: nafarren %63,7 erreferendum baten alde azaltzen da EAErekin harreman sistema aukeratzeko.

Datu horiek kontuan hartuz, Euskal Herriaren batasun juridiko-politikoa bultzatzen hasi nahi dugunok ondorio praktikoak atara behar ditugula uste dut: gaurko egoera politikoa gainditzeko prest azaltzen bada gizarte nafarra, nahiz eta gehiengo abertzaleatasunaren proiektuarekin bat ez etorri, mekanismo berriak topatu behar ditugu, denon artean, egitura juridikoa nafarren borondateari egokitzeko. Lurraldetasunean betiko planteamendu maximalistak eginez, ez da ikusten aurrera joateko aukera handirik.

EAK erakunde berri baten sorrera planteatzen du: *Dieta euskal-nafarra*. Horrek alde bietako legebiltzarkidetz eratuta egongo litzateke, eta legeak egiteko funtzioa edukiko luke, aurretiaz erabakitako gaietan. Gainera, erakunde horretatik Kontseilu exekutibo bat sortuko litzateke, kasu honetan ere alde bietako gobernuakideez osatuta.

Erakunde sare honen bitartez, uste dugu euskal lurralde guztien izakera eta tradizio politikoak errespetatzen direla. Aldi berean, egungo egoera gainditzeko instrumentu ezinhobeak izan liteke, gradualitate baten barruan edozein momentutan loturak estutzeko aukera zabalik geratzen delako, beti ere lurralde bien borondatearen arabera.

gogoraturaz

• JOXAN ELOSEGI •

• Duela 19 urte

Telesforo

1981eko martxoaren 9an hil zen Donibane-Lohizunen Telesforo Monzon Olaso buruzagi abertzalea eta Euskal Herriaren independentziaren aldeko borrokari suharra. Bergaran sortua zen 1904ko abenduaren 1ean, etxe noble batean; jauntxoa zen, beraz, Erdi Aroko ahaiden nagusien ondorengoa, Olasoko etxearen askazikoa. Eskuinak ez zion zaldun nortasun hura amaierako urteetan barkatuko, eta ezkerak, hau ironia, ez zion mesprezuz hartu. Ederki baliatu zen Alderdi Jeltzalea

Errepublikara garaian Bergarako alkate eta Espainiako Gorteetan diputatu egin zuen jauntxo izate hartaz, baina destainez hartu zuen Franco hil ondoko urteetan, Jesus Maria Leizaolak argiro adieraziko zuen bezala: «Ez zen zegokion garaian sortu. Haren lekua Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko zalduntxoaren artean zegoen, XVIII. mendean». Nabardura eta gorabehera handiko gizona izan zen Monzon, egunoroko tratuan zaila eta aristokraziak harremanetan ohi dituen tarteen laguna, baina aldi bere-

an jendearengana oro har iristen zekiena, eta bere ideiei hil arte zintzo eutsi ziena.

Bi gau egin zituen Monzonen gorpua Donibane-Lohizuneko etxe-ko sala handiaren erdian, hurbilekoen doluzko begirapean. Hilaren 11n hasi zen progua, sorterriko hilerriraino luzatuko zena, Espainiako poliziak, euskal jendearen beldur, galaraziko zuena. Irungo zubian izan ziren lehen trabak: hara bildutako jendea jipoitzen ari ziren bitartean lortu zuen hil-furgoiak poliziari ixkin egitea; onez

igaro zuen Orereta, baina Pasaia jo orduko, aski da esan zuen poliziak eta ordu pare batez tirabirak izan eta gero, gorpua bahitu eta anbulantzia batean eraman zuten zomorroek Bergararaino. Hil ondoan ere ez zuten errespetatu. Biharamunean, milaka eta milaka lagun bildu ziren Bergarara Telesforo Monzoni azken agurra egiteko. Monzonen heriotzarekin, buruzagirik gabe gelditu bide zen ezker abertzalea, baina herriak argi erantzun zuen: lepoan hartu eta segi aurrera.

Maltzagarako bidea erakutsi zuen Monzonek, eta egun beste jomuga batzuk ere baditu bide horrek, Lizarra eta Garazi. Burujabetzarako bideak ez du beste adarrik, ezta bidezidorrik ere, are gutxiago Madril edo Paristik igaroko litzatekeen saihesbiderik. Buruz buru, arrazoia zuen Telesforok.